

FRANCESC ARAGALL DESIGN FOR ALL FUNDAZIOKO LEHENDAKARIA

«Eskuragarritasuna eremu guztietara zabaldu beharra dago»

Atzo amaitu zen Iruñean Oztopo Arkitektonikoak Ezabatzeko Nazioarteko I. Biltzarra. Europa osoko adituak izan dira bertan, Aragall tartean, xede bakar batekin: hainbat herrialdetako egitasmoak trukatzeko eta etorkizunerako lan ildoak zehaztea.

LANDER FERNANDEZ ARROIAE / ARGAZKI PRESS



Kristina Berasain | IRUÑEA

Design For All Fundazioa nazioarteko elkarte da. Egiten den gauza oro guztien eskura egotea da bilatzen duen helburua. Diseinua guztiontzat da Fundazioaren esanahia eta Francesc Aragall bere lehendakaria.

■ Zer dago, hain zuzen ere, kontzeptu horren atzean?

Europar oso ezaguna den kontzeptua da Design For All. Finean, biltzen duen asmo nagusia hau da: sortzen den inguru, produktu eta zerbitzu orok pertsona guztien eskura egon behar duela, hau da, zerbait egiten denean pertsona guztiak izan behar ditugula aintzakotzat, bere generoa, adina edo gaitasuna edozein izanda ere. Guztiok parte hartu behar dugu gizartearen eraikuntzan, eta guztiok izan behar dugu gizarte horrek eskaintzen dituen gauzez gozatzeko aukera bera.

■ Beraz, ez zarete ari elbarri

fisikoez soilik, haratago doan kontzeptua da...

Nik ez dakit elbarri fisikoa zer den: norberak zehaztu behar du zertarako duen gaitasuna eta zertarako ez, eta ez agiri batean datorren izenak. Bizitzan zehar etapa asko ezagutzen ditugu, eta denok jaiotzen gara ibiltzen ez dakigula. Beraz, afera ez da normala eta elbarria bereiztea, dikotomia hori ez da zuzena; izan ere, aniztasuna da normala, eta garrantzitsua den gauza bakarra aniztasun hori errespetatzea da.

■ Sarritan hitz egiten da oztopo arkitektonikoak ezabatzeaz; dena den, zuen lan ildoak zabalagoa ematen du.

Oraintsu arte oztopo arkitektonikoak ezabatzeaz baino ez zen hitz egiten, hots, aulki gurgildunetan ibiltzen diren pertsonen diseinua zen ardatz nagusia. Egun, berriz, diseinu eskuragarria estetikarekin eta gainerako herriarrek in zutar daitekeen zerbait bezala ulertzen da.

■ Ildo horretan, Bartzelona hiria eredugarria izan da, ezta?

Bai, Bartzelonak jakin zuen eskuragarritasuna eta estetika bateratzen, eta hori oso garrantzitsua izan da. Hiriak esan zuen: eskuragarritasuna ez da soilik aulki gurgildunetan doazenentzat, guztiontzako gauza baizik, eta gauza polita gainera. Horretan aitzindaria izan zen Bartzelona.

■ Eta zein arrazoi dago arrakasta horren atzean?

Elbarrien elkarteek egin zuten aldarrikapenean, batetik; udalak hartu zuen eta egun izaten jarraitzen duen konpromisoan, bestetik; eta, azkenik, adituek erakutsi duten profesionaltasunean. Teknikoek gauzak ongi egiteko nahia agertu dute beti, eta horrek guztiak bere emaitzak eman ditu.

■ Egun hauetan beste herrialdeetako adituekin egoteko aukera izan duzue. Alde nabariak al daude eskuragari-

HELBURUA

«Sortzen den inguru, produktu eta zerbitzu orok guztien eskura egon behar du»

ARAUDIA

«Eskuragarritasun araudiak ez dira betetzen, gainbegiratze lana egiten ez delako»

tasun planek hainbat lekutan izan duten harreraz?

Nik uste dut duela urte batzuk aldeak nabariagoak zirela. Gaur egun, globalizazioa dela medio, herrialde gehienetan ibilbide bera jarraitzen ari gara.

■ Gizartea kontzientziazteko garaia, beraz, atzean gelditu al da?

Bai, orain ekintzara pasatzeko garaia heldu da. Jendeak ez badiu ulertzen, neurriak hartu behar dira; legeak eta zigorrak ezarri, alegia. Ageriko gauza da diru publikoa ezin dela bakarrik batzuentzako erabilgarriak izango diren gauzak egiteko erabili. Diru publikoak hiritar ororentzat izan behar du mesedegarri.

■ Alta, onartzen diren araudiak gero betetzen ez direla salatzen da.

Bai, egun arkitektoek badakite zer egin behar den eta proiektuak ongi egiten dira; dena den, ez dira egindako lanak gainbegiratzen eta hor egoten dira arazoak. Araudiak ez dira betetzen. Ikuskapenak egin behar dira.

■ Bide luzea gelditzen al da guztiontzako erabilgarria izango den hiria egiteko?

Askotako egiteke, baina hiriak bide onean daudela uste dut. Industriaren alorrean, aldiz, gauzak bestelakoak dira eta garatu beharreko sektorea da hori. Hau da, eskuragarritasuna eremu guztietara zabaldu behar dugu, produktu guztietara.

ZIGOR KODEA

Etorkinei defentsarako eskubidea ukatu izana salatzen du Jaurilaritzak

Erredakzioa | BILBO

Espainiako Gobernuak zigor kodea aldatzea onartu zuen herenegun, eta horren arabera, delitu txikiak egiten dituzten etorkinak kanporatu egingo dituzte. Eusko Jaurilaritzaren ustez, horrelako neurriak hartzean delinkuentzia eta etorkinak lo-tzen ditu Espainiako Gobernuak. Era berean, etorkinak delitu txikiak egiteagatik kaleratu ahal izateak Espainiako Konstituzioaren kontra egiten duela gaineratu zuen.

Bestalde, Jaurilaritzak azpimarratu du zigor kode berriak defentsarako eskubidea ukatzen die la etorkinei. «Epaiketak egin gabe, ustezko errudun bat besterik gabe kondenatzen du», arrazoitu du. Halaber, horrelako neurriak hartzeak ez duela onurarik ekartzen frogatuta dagoela nabarmendu zuen.

SEXUALITATEA

Gazte gehienek lagunen bitartez lortzen dute sexuari buruzko informazioa

Erredakzioa | BILBO

Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak egindako azterketa baten arabera, gazteen %37k lagunen bitartez lortzen dute sexualitateari buruzko informazioa. %17k lortzen dute ikastetxean, komunikabideetatik %16k eta gurasoen bidez %15ek. Halaber, Jaurilaritzak esan duenez, sexualitatearen gaiak «tabu» izaten jarraitzen du Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko familietan, sexuaz eta antisorgailuek ia ez delako berba egiten sendietako kideen artean.

Bestalde, norbaitekin hitz egitekotan, seme-alabek amarengana jotzen dutela argitu du Jaurilaritzak, egindako azterketan. Era berean, daukaten informazioa nahikoa dela diote inkesta egin duten gazteek.